

179/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 6KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, DEIALDIA EGITEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO DATUAK BABESTEKO ZERBITZUAN ADMINISTRAZIO LAGUNTZAILE ETA ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ/ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO.

LANPOSTUA: ADMINISTRAZIOKO ETA ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO LAGUNTZAILEA

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia. Datuak Babesteko Zerbitzua.

JARDUNALDIA: Zatitua (Vitoria-Gasteiz)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE, derrigortasun-datarik gabe.

BALDINTZAK:

(Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza CV aplikazioan jasota badaude).

Eskatzaile guztientzat:

Administrazio-kudeaketako teknikariaren titulua edo baliokidea izatea.

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila bera edo txikiagoa duen beste kategoria batekoa izatea: Administrazio- eta Erabiltzailearentzako Arretako Laguntzailea.
- Karrerako funtzionario edo estatutupeko langile finko gisa edo lan-kontratu finkorik ez izatea Administrazio eta Erabiltzaile Arretako Laguntzaileen kategorian, izendapen edo kontratu horrekin lotutako administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusiaz bestelako zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, etenik gabe urtebete baino gehiago eramatea egoera horretan.



Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetan, Administrazio eta Erabiltzaileentzako Arretako Laguntzaileen kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA:

(agiri bidez egiaztatu beharko dira)

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 47,5 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetza Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendaritzara (Araba kalea 45) bidali beharko dute eskabidea, datu pertsonal guztiekin eta Curriculum Vitae dokumentatuarekin batera (Osakidetza CV aplikazioan baliozkotuta dutenak izan ezik).

Aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Hautaketa eta Hornikuntzako zuzendariordea buru dela, eta honako hauek osatuko dute: Datuak Babesteko ordezkariak, Aholkularitza Juridikoko zuzendariordeak eta Horniketako zerbitzuburuak (azken hori idazkaria izango da).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Batzordeak. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiokete Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 6a.



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA